

# Istripu Asegurua

## Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

SEGUROS LAGUN ARO S.A., Espainian erregistratutako aseguru-entitatea (C-0572)



Banakako istripuen aseguru

Dokumentu honetan aseguruaren alderdi aipagarrienak laburbiltzen dira, eta, beraz, eskaintzen den informazioa ez da osoa. Informazio osoa aseguruaren proiektuan eta kontratuaren Baldintza Partikular eta Orokorretan jasoko da.

## Zertan datza aseguru mota hau?

Kalte pertsonalengatik kalte-ordaina ematean eta baliabide ekonomikoak eskaintzean, edozein eratako istripua gertatuz gero (lanekoa, zirkulaziokoa edota bizitza pribatukoa edo aisialdikoa) aseguratuak edo haren onuradunek izan ditzaketen ondorioak eta premiak arintzeko. Kontratututako bermeen arabera, estali ahal izango dira aseguratuaren ondarea babestea hura hilez gero, kalte pertsonal iraunkor, ondorio edo lesio fisiko eta funtzionalengatik kalte-ordaina ematea, haien ondorioz laneko ezintasuna egon ala ez, berehalako eta kalitatezko osasun-laguntza ordaintzea (diagnostikatzeko mediku-probak, ebakuntza kirurgikoak, protesiak, errehabilitazio-saioak, farmazia-gastuak,...), bai eta ospitaleratze-aldiak ere, edo aldi batez edo modu iraunkorrean lan egiteko ezintasunaren ondoriozko diru-sarreraren gutzitzea arintzea.



### Zer aseguratzen da?

Istripuzko heriotza eta/edo

- ✓ Ezintasun iraunkorra: istripu batek eragindako gorputz-lesioen ondoriozko gorputz-adarren edo organoen galera anatomikoa, kaltea, ondorioa edo ezgaitasun funtzionala, berreskuratzea aurrez ikusten ez denean.

#### Aukerako estaldura osagarriak:

- Ezintasun Iraunkor Absolutua: istripu batek eragindako egoera fisiko atzeraezina, edozein lanbide-harreman edo jarduera profesional izateko ezintasuna ekarri duena.
- Ezintasun iraunkor profesionala (Erabatekoa): istripu batek eragindako egoera fisiko atzeraezina, antzeko prestakuntza eta lanbide-ezaguerak eskatzen dituen ohiko lanbide-harremana edo jarduera profesionala izateko ezintasuna ekarri duena.
- Zirkulazio-istripuagatik baliaezintasun Iraunkorra.
- Zirkulazio-istripuagatik ezintasun iraunkor absolutua.
- Zirkulazio-istripuagatik ezintasun iraunkor profesionala (osoa).
- Istripuagatik osasun-gastuen itzulketa.
- Eguneko kalte-ordaina istripuaren ondorioz ospitaleratuta egoteagatik.
- Eguneko kalte-ordaina istripuaren ondorioz laneko baja hartzeagatik.



### Zer ez dago aseguratua?

- ✗ Kontratu hau indarrean jarri aurretik gertatutako gaixotasunak eta istripuak, nahiz eta haien eragina kontratua indarrean egon bitartean azaldu.
- ✗ Estalitako istripuak gertatu eta 365 egun igaro ondoren azaltzen diren ondorioak.
- ✗ Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoak estaltzen ez dituen ezohiko gertaerak.
- ✗ Aseguratuak nahita sortutako istripuak, baita bere buruaz beste egitea edo egiten saiatzea ere.
- ✗ Preskripzio medikoak edo ezarritako tratamendua ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik sortutako ondorioak edo larriagotzeak.
- ✗ Aseguratua edari alkoholodunen, drogen, toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean dagoenean gertatutako istripuak.
- ✗ Delituzko, zuhurtziagabekeriazko edo zabarkeriazko egintzen ondorioak eta apustu, desafio, duelu edo liskarretan parte hartzearen ondorioak.
- ✗ Kiroi-jarduerak egitea, Baldintza Partikularretan espresuki adierazi eta sartu ez badira behintzat.
- ✗ Miokardioko infartuak, istripu baskularrak edo garunekoak, atake epileptiformeak, ezta haien ondorioak ere, nahiz eta ebazpen judizial batek edo Gizarte Segurantzako organo eskudunek "lan-istripu" gisa kalifikatu.
- ✗ Edozein eratako edo jatorritako herniak eta haien larriagotzeak, ez eta distentsioak, muskulu-hausturak, lumbagoa, lumbalgia eta dortsalgia ere.
- ✗ Intsolazioak, izozketak eta tenperatura atmosferikoaren ondorioak.
- ✗ Elikagaiak hartzeagatik izandako intoxikazioa edo pozoidura.
- ✗ Tratamendu mediko-kirurgikoen ondorioak.
- ✗ Edozein eratako gaixotasuna.



## Estaldurari dagokionez, badago murrizketarik?

### Muga nagusiak honako hauek dira:

- ! Heriotza: istripua gertatu eta hurrengo 12 hilabeteen barruan.
- ! Ezintasun iraunkorra: Gorputz-lesio, ondorio edo muga funtzional bakoitzaren arabera aplika daitezkeen kalte-ordainaren ehunekoak Baldintza Orokorretan ezartzen dira.
- ! Ezintasun iraunkor partziala, absolutua eta profesionala (osoa): Istripua gertatu eta hurrengo 18 hilabeteen barruan ematen da.
- ! Osasun-gastuak, ospitaleratzea eta laneko baja: Kalte-ordainaren edo estalduraren gehieneko epea 365 egunekoa da.

### Bestelako mugak:

- ! Osasun-gastuak: Mediku-laguntza aseguru-etxeak espresuki onartutako medikuek eskaini beharko dute; hala ez bada, aseguratuak gastuen erdia bere gain hartuko du, larrialdietako laguntzaren edo lehen laguntzaren ondoriozko gastuak salbu.
- ! Ospitaleratzea: Kanpo geratzen dira bainuetxe eta erietxeetako egonaldiak.
- ! Laneko Baja: Estalduraren definizioak eta norainokoak ez dituzte jarraitzen Gizarte Segurantzaren kalifikazio-irizpide berak, eta aseguru-etxearen peritu medikoen balorazioa hartuko da kontuan.



## Non nago estalita?

- ✓ Osasun-gastuak, Ospitaleratzea eta Laneko baja aukerako berme osagarrietarako: Europako herrialdeetan, Estatu Batuetan eta Kanadan.
- ✓ Gainerako bermeetarako: munduko herrialde guztietan.



## Zein dira nire betebeharrak?

- Aseguruaren urteko prezioa kontratuan ezarritako baldintzetan ordaintzea.
- Kontratua formalizatu aurretik eta haren indarraldian, arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen inguruabar guztien berri ematea Seguros Lagun Arori.
- Istripua izan dela jakin eta gehienez ere zazpi eguneko epean horren berri ematea.
- Eskura dauden baliabideak erabiltzea, istripuaren ondorioak arintzeko.
- Ezbeharra ahalik eta egokien izapidetzen laguntzea, Seguros Lagun Arok eskatutako dokumentazioa aurkeztuz eta istripuarekin zerikusia duten jakinarazpen judizial, judizioz kanpoko edo administratiboen berri emanez.



## Noiz eta non egin behar ditut ordainketak?

Kontratua formalizatzeko unean eta haren urteroko berritze-datan egingo da ordainketa. Baldintza partikularretan jasotakoaren arabera egin beharko da, eta bankuan helbideratuz edo zenbatekoa bitartekariari entregatuz egin ahal izango da.



## Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Baldintza Partikularretan adierazitako egunean eta orduan hasi eta amaituko da aseguru. Ondoz ondoko berritzeen ondoren, ordaindu den aseguru-aldia bukatzen den egunean eta orduan amaituko da. Aseguratuak 70 urte betetzen dituen aseguru-urtetik aurrera kontratua berritzeari utziko zaio.



## Nola hutsaldu dezaket kontratua?

Jakinarazpen idatzia bidaliz, indarrean dagoen aseguru-aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete bat lehenago.